

Denboraren antolaketa

Gero eta gehiago dira denbora ondo antolatu ahal izateko tresnak

o 38-39



Askapeneko zazpi kide atxilotu dituzte, ETaren nazioarteko estrategiari lotuta

ETaren izenean nazioarteko erakunde armatuekin harremana eta lankidetzaz izatea leporatu die Espainiako Barne Ministerioak atxilotuei

Operazioak kutsu politikoa duela eta Euskal Herrian abiatzen ari den garai berriaren kontra doala uste dute ezker abertzaleak, Aralarrek, ELAk eta LABek

o 2-3



Espainiako Polizia Ruben Sanchez atxilotzen, Gastelzen. ADRIAN RUIZ DE HIERRO / EFE

Eskubideen aldeko Bilboko manifestazioa babestu dute 40 eragilek

Irailaren 11ko debekuen ostean larunbatean kaleak beteko direla uste dute, eskubideen aldeko bidea «geldiez» bihurtzeko

o 8

Sylvia Earle

Ozeanografoa

«Jakín behar dugu Lurraren egiazko motorra ozeanoak direla»

Gizakiaren iraupena ozeanoetan oinarritzen dela nabarmendu du

Elkarrizketa o 12



Sylvia Earle. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Euriteek eragindako luizi batek herrixka bat suntsitu du Mexikon

Datu ofizialen arabera, zazpi lagun hil eta ehun desagertu dira, baina hilak mila ere izan daitezkeela esan dute agintariek

o 19

Egungoa bete arte Lapurdin ez dela AHTrik egingo esan du Barlook

Ingurumen ministroak ez du esan AHTa egingo ez denik, baina apaldu egín du orain artean gobernuak eman dion garrantzia

o 13

Sylvia Earle ◉ Ozeanografoa

Earle zientzialari eta esploratzaileak dio itsasoaren etorkizuna eta ondorioz gure etorkizuna ere arriskuan daudela.

«Itsaskiak jaten nituen lehen, baina orain gehiegi dakit»

Irune Lasa Donostia

Nobel sari eta ikerlarien artean, esploratzaile bat. DIPCren Jakintzaren Jaialdian atzo hitzaldia eman zuen Sylvia Earlek (AEB, 1935). Komunikaziorako abiletza berezia duen emakume atsegin honen ekarpenak kontaezinak dira. Batzuk Ilargia esploratzen ari ziren bitartean, Earle beste muga ezezagun bat urratzen ari zuen: itsasoetako sakonak.

Hainbat marka ditu sakoneko urpekaritzan. Adibidez, 1989an 400 metroko sakoneran ibili zen itsas hondoa, ordura arte inork zapaldu gabeko tokietan. Esporatu soilik ez, itsaspe sakonetako ikerketarako urpeko ontzi eta jantzi bereziak ere diseinatu ditu Earlek, eta horiek egiteko enpresak sortu. Haren ekimenak eragin handia izan du ozeanoetako lehen itsas babeslekuaren ezarpenan.

Itsasoaren egoera larria duzu hizpide DIPCko Ezagutzaren Jaialdian, baina hori baino lehen... zer sentitzen da 400 metroko itsas sakoneran pasieran?

Ederra da inork zapaldu ez duen toki batera iristea. Begira, zientzialari eta esploratzaile izateko, haurrek bezala jokatzeko dugu: jakin-minarekin galderak egiten, zer, non, zergatik... Inguaruarekin liluratzeko haurrek duten ahalmen horrekin. Zenbaitek ahalmen hori galdu egiten dute adinean aurrera egitean, begirada murritzen dute. Ni haurrek bezala sentitzen naiz ur sakonetan: liluratu.

Jakin-minaz gain, adorerik ere ez zaitu falta. Adibidez, 1968an Deep water itsaspekoan urpean murgildu zirenean haundun zeunden, lau hila beteko.

Ez dut tuste hori adorea zenik. Alabak dio itsasoa maite duela, jaio aurretik ere urpean ibili zelako.

Zergatik ez duzu itsaskirik jaten?

Jaten nuen; nire familiak oso gustuko zituen itsasoko elikagaiak. Baina orain gehiegi dakit. Ulertzen dut arrantzaleek bizibidea dutela, baina ni haurra nintzene-

tik hona, ozeanoetako arrain handi guztien %90 jan, kontsumitu dituzte gizakiak. Eta horrela jarraitzen badugu, mende honen erdialderako arrantza ez da aukera bat izango jada: ez da hegalaburrik izango, ez ezpatarrinik, ez bakailorrik, ezta halibutik ere. Eta berdin arrain txikiak ere; sardinazarra bera arrisku larrian dago.

Gehiegizko arrantza salatzen duzu.

Euskal arrantzaleek ez dute hori egiten. Baina munduan zenbait arrantza modu oso suntsitzaileak dira; itsas hondoa erabat hondatzen dituzte. Basoko txori batzuk hartzeko buldozer bat erabiltzea bezala da hori. Onartezina da, zentzugabea. Eta horixe egiten ari dira Europako arrantzaleak Afrikako kostaldean, ontzi industrial handiekin. Munduko merkatuak txinpanetze edo elefanteekin hornitu nahi izatea bezala da hori.

Marmokak jaten amaituko dugula diote batzuek...

Ozeanoen izaera aldatzen ari da gizakia. Koralezko uharrak bizirik gabe gelditzen ari dira; klima aldaketaren eta karbono dióxidoaren ondorioz, itsasoa azidotzen ari da... Ni haurra nintzela, pen-

«Txoriak harrapatzeko basoan buldozerra sartzea bezalakoak dira arrantza era batzuk»

«Lurraren egiazko motorra ozeanoak dira; haiek zainduta, geure burua zaintzen dugu»

tsatzen zen ozeanoa hain zela handia, hain zabala, hain sendoa ezin geniola kalte egin. Baina orain oso begi bistakoa da gehiegi hartu dugula itsasotik (arrantza), eta gehiegi utzi dugula (kutsadura, azidotzea). Baina oraindik ere badago aukera bat.

Egoeraren larritasuna azaltzeaz gain, irtenbideak ere aurkezten dituzuk.

Bai, eta irtenbide garrantzitsue-



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

na jakintza da; jendeak jakintza duenean ekimen pertsonalak abia ditzake gauzak aldatzeko etxean, komunitatean... Mundua alda daiteke, baina hastapenean ulerkuntza dago, jakintza. Eta jakin behar dugu Lurraren egiazko motorra ozeanoak direla eta motor hori zaintzen dugunean geure burua zaintzen dugula. Ozeanoan oinarritzen da gizakiaren beraren iraupena. Planktonak sortzen du oxigenoa, CO₂ harrapitzen du, motorrari martxan eusten dio. Baina orain aste gutxi jakin dugu datua: 1950. urtetik hona planktonaren %40 galdu da.

Akuikultura irtenbide bat da?

Proteina kopuru handiak lortzeko, lurtean oilaskoak, behiak eta halakoak hazten ditugu, landareak janez modu eraginkorrean hazten diren animaliak eta ez animalia haragijaleak. Gainera, oso gazte jaten ditugu, asko jota bi urterekin. Baina guk kontsumitzen ditugun arrainak, batez ere, haragijaleak dira. Arrain handiak hazteko, arrain txiki mordo behar da. Gainera, arrain txikiak ere zaharrak dira. Sardinaz bateg, adibidez, 3-4 urte izango ditu; hegalaburak, 10 urte; itsas sakoneko arrain batzuek, hemen bertan arrantzatzen direnek, 50 urte izango dituzte. Ez da eraginkorra horren hazkuntza moteleko espezieak haztegiatan elikatu eta haztea. Gainera, zenbat eta arrain zaharragoa, itsasora jaurtitako toxina gehiago ditu; merkurioa,

esaterako. Hala ere, badaude era eraginkorrean haz daitezkeen arrain landare jaleak: Txinan mendeak daramatzate karpak hazten, tilapia arraina ere hor dago...

Hala ere, kontua ez da arrantza uztea.

Hainbat tokitan, hemen Euskal Herrian bezala, jendea urteetan ikasten joan da nola arrantzatzen, errespetu eta abiletza handiarekin. Horrekin jarraitzeko, mundu zabalean jendeak konturatu behar du mugak daudela, arrain basatiak oso neurrian arrantzatzen behar direla.

Babeslekuen alde egiten duzu.

Ozeano Bareko uharteetan, Txileko kostaldean, AEBetan... Ekosistema osoa aintzat hartzen duten itsas babeslekuak ezarri diren tokietan funtzionatu egin dute. Hori landu behar dugu

Eta orain da unea.

Bai, berandu izan baino lehen, itzulerarik gabeko egoeratik hurbil gaude eta.

TED sarietan zenioen gehien maite zenuen espeziea gizakia zela. Soilik haren hegala jateko marrazoa hiltzeko gai den gizakia zenuen gogoan? Zergatik gara hori egiteko gai?

Haurrak izatea ahaztu dugulako. Dena den, jarrera hori ikasitakoa da eta alda daiteke. Gizakiarentzat ez da naturala beste bizitza formekin horrela jokatzeko. Jakina, jan egin behar dugu, baina hori errespetuarekin egin behar da, ez utzikeriarekin.

Klima aldaketari aurre egingo dio Bizi mugimenduak urriaren 10ean

Alternatiba izeneko herritarra osatuko du Baiona Ttipian, jendeak CO₂ isuriak saihesteko bideak aztertzeko xedez

Aitor Renteria Baiona

Urriaren 10ean klima aldaketaren aurkako mobilizazio egunera deitu dute nazioartean. Euskal Herrian ere, Bizi mugimenduak, bat egin nahi izan du ekimen horrekin. Mundu zabaleko 161 herritan 4.000 ekimenetik gora izanen dira. Karria horretara, Baiona Ttipian Alternatiba izeneko herritarra antolatuko du Bizik. Munduaren etorkizuna zalantzan ezartzen duen klima aldaketari aurre egiteko bideak eskaintzea da Biziren xedea. Hain zuzen ere, 2010etik hasita munduko CO₂ isurketa %10 apaltzea aldarrikatzen dute. Gobernuen erabakien beha egon gabe, herritar bakoitzak egin dezake ekimenetan oinarritu nahi du Bizik.

Karbono isurketarik gabeko herria posible dela erakutsi nahi du. Goizeko hamarretan hasi eta gaueko hamarretan bukatuko da ekimena. Batetik, eguna ekoizpen arduratsuaren erakuslelho izatea nahi dute. Ekoizpen biologikoen merkatua izanen da. Nahi duten artisauak ere parte har dezakete merkatuan, ekoizpen arduratsua izanik ardatza. Sarrean, bisitari bakoitzak isurtzen duen CO₂ kopurua neurtzeko galdetara jasoko du, eta ateratzean, kopuru hori apaltzeko proposamen orria hartuko du. Har ditzakeen engaiaimenduak hautatzea proposatuko zaio. «Ez diogu inori proposatu nahi bere aldetik iraultza egin dezan, bere eskura dauken erabaki txikiak hartu eta munduaren interesen arabera jardutea baino», adierazi du Jean Noel Etxeberri *Txetz* Biziko militanteak.

Autorik gabe

Automobilik ez da ibiliko besteren eremuan. Eguneroko abiadura utzi, eta herritarrei elkartzeko eta solaserako parada eman nahi diete Biziko kideek. Eremuan zehar, kadirak eta mahaia ezarriko dituzte, jendeak bazkaldu edo solas egin ahal izateko.

Gutxi baliatzen diren tresnak trukatzeko gune bat antolatu nahi du Bizik. «Denek ditugu etxean urtean behin erabiltzen ditugun tresnak; horiek zerrendatu eta elkarrekin baliatzea nahi dugu, inposatu nahi duguten merkaturu ikuspegitik ihes egiteko».